



# Fiskalitatea

AZTERKETAK 33

**Hego Euskal Herriko  
fiskalitateari  
eta aurrekontuei  
buruzko txostena**

2016ko MARTXOA

**Diru sarrerak  
nondik datoz?**

**Nork ordaintzen ditu  
zergak?**

**Non ematen da  
iruzurra?**

# Fiskalitatea

Zerga-sistemak edo fiskalitateak guztiz baldintzatzan ditu egiten diren politikak.

Alternatiba fiskalak proposatzeko, HEHko zerga sistema aztertuko dugu:

- Diru-sarrerak nondik datozen
- Zergak nork ordaintzen dituen
- Zergak nola ordaintzen diren
- Iruzurra non ematen den

# Presio fiskala

Zer da presio-fiskala? Sortzen den Barne Produktu Gordinarekiko (BPG) administrazioek biltzen duten ehunekoa:

- Zerga hitzartuak (Konzertu eta Itunean jasoak)
- Udal zergak
- Gizarte Segurantzako kotizazioak

# Europarekiko alderaketa

**2012koak** dira ditugun Europako azken datuak.  
Zein izan zen **presio-fiskala** urte hartan?

- EAEn            %30,8
- Nafarroan    %29,4
- HEHn           %30,5
- EB-28         %39,4
- Danimarka    %48,1

# Europarekiko alderaketa

**EB-28ren presio fiskala** bagenu, zenbat diru gehiago bilduko genuke urtean?

- EAEn 5.683 milioi gehiago
- Nafarroan 1.838 milioi gehiago
- HEHn 7.521 milioi gehiago

Eta **Danimarkako presio fiskala** bagenu?

- HEHn 14.987 milioi gehiago

# Zerga hitzartu bidez bildutakoa

## 2015ean zenbat bildu zen HEHn?

- EAEn 12.613 milioi
- Nafarroan 3.198 milioi
- HEHn 16.811 milioi

Gogoratu, Danimarkako presio fiskala bagenu zenbat diru gehiago bilduko genukeen:

- HEHn 14.987 milioi gehiago

# Zuzeneko eta zeharkako zergak

**Zeharkako zergak zuzenekoak baina bidegabeagoak** dira, guztiei berdin eragiten baitie, duten aberastasuna edo dituzten diru-iturriak kontuan hartu gabe.

Zeharkako zergen bidez 2015ean bildutakoa:

- EAEn 6.539 milioi (guztiaren %51,8)
- Nafarroan 1.497 milioi (guztiaren %52,2)

# Zuzeneko zergak

Bi diru iturri nagusi daude:

- **Pertsona Fisikoen Errentaren Zerga (PFEZ):**
  - × laneko errenten zerga (soldatapekoek ordaintzen duguna)
  - × enpresa, profesional eta kapitalaren gaineko errenten zerga
- **Sozietateen Gaineko Zerga:** enpresa eta sozietateek izan dituzten etekinak zergapetzen ditu (etekinik ez duenak ez du ordaintzen)



# Zuzeneko zergak: PFEZ

Zenbat bildu da PFEZ bidez 2014ean?

- **EAEn:**

- x Enpresa, profesional eta kapitalaren gaineko errentek 1.494 milioi
- x Laneko errentek 4.474 milioi

- **Nafarroan:**

- x Enp., prof., kap. 353 milioi
- x Laneko errentek 1.060 milioi

# Zuzeneko zergak: PFEZ

2011n batez beste zenbat ordaindu zuen soldatapeko batek?

- EAEn: 23.039 €
- Nafarroan: 21.006 €

Eta enpresa, profesional edo kapitalaren errentak dituztenek?

- EAEn: 11.944 €
- Nafarroan: 13.186 €

# Zuzeneko zergak: Sozietateen Gaineko Zerga

2015ean zenbat bildu zen zerga honen bidez?

- EAEn: 1.039 milioi
- Nafarroan: 217 milioi

Gogoratu zerga hau etekinak dituztenek soilik ordaintzen dituztela. 2011n EAEn sozietateen:

- %70ek deklaratu zuen galerak zituela.
- %10ek 6.000 €-tik beherako irabaziak zituela.

# Zuzeneko zergak: Sozietateen Gaineako Zerga

**Tasa nominala:** 2011n teorian zenbat ordaindu beharko luke sozietate batek ehunekotan?

- EAEn: %26,6
- Nafarroan: %27,5

**Egiazko tasa:** Praktikan zenbat ordaindu zuen?

- EAEn: %14,9
- Nafarroan: %15,3

Hau gertatzen da sozietateek azkenean ordaintzen duten **zenbatekoa murrizteko mekanismo asko** daudelako

# Ondorioak

Diru bilketa nagusia zeharkako zergen bidez egiten da.

- EAEn: %51,8
- Nafarroan: %52,2

Zerga zuzenen bidez jasotzen den zenbat da soldatapekook ordaindutakoa ehunekotan?

- EAEn: %75,1
- Nafarroan: %70,8

Zerga zuzenetan soldatapekook ordaintzen ditugu zerga gehien.

# Ondorioak

Jarduera ekonomikoa duten pertsonen soldatapekoko baino dezente gutxiago ordaintzen dute (erdia ia):

- EAEn: 11.094 € gutxiago 2011n
- Nafarroan: 7.820 € gutxiago 2011n

Sozietateen %80k dio galerak dituela edo 6.000 €-tik behera irabazten duela.

Sozietateei mekanismo asko ematen zaizkie ahalik eta gutxien ordain dezaten.

# Ondorioak

Zergak batez ere **langileok ordaintzen ditugu**. Sozietateei eta jarduera ekonomikoetan dihardutenei ematen zaizkien mekanismoen bidez eta baimentzen zaien iruzurraren ondorioz, besteak beste, **oso urrun gaude Europako presio fiskaletik**.

Zerga bidez **diru asko biltzeari uko** egiten diogunez, **gizarte politiketarako dirurik ez dagoela** esaten dute.